

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

#### **Foru Gobernu Kontseiluaren 5/2017 Foru Dekretua, otsailaren 21ekoa, Foru Aldundi honen Gardentasunaren Foru Kontseilua eratzen duena, eta haren antolaketaren eta funtzionamenduaren arautegia onartzen duena**

Lehenik eta behin, esan behar dugu badirela urte batzuk Arabako Foru Aldundia prozesu honetan murgilduta dagoela, gobernu eredu berri bat ezartzeko eta finkatzeko xedearekin. Prozesu honetan, zenbait helbururi lehentasuna eman zaie: gobernu ona, gardentasuna eta publikotasuna administrazioaren jardunean, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gauzatzeko baldintzak, politika publikoen ebaluazioa, eta herritarren parte hartzea Arabako Lurralde Historikoko arazo publikoetan.

Ildo horretan, erakundeen eguneroko jarduna –kudeaketaren gardentasunari, herritarrek informazio publikoa eskuratzeari eta herritarrek foru arazoetan parte hartzeari dagokienez– zenbait testu arau emaitan islatu da, gardentasunaren inguruko kontuak arautzen dituztenak. Horren adibide da Ondasunen Erregistroan gordetako aitortpenen edukiak ALHAOan argitaratu izana (otsailaren 18ko 7/2008 Foru Araua, Arabako Foru Aldundiaren Jardueren Erregistroa eta Ondasun eta Interesen Erregistroa arautzen dituena), Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargu publikodunen eta ordezkarien Gobernu Onerako Kode Etikoaren onarpena (Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 3ko 477/2015 Erabakia), eta aldi bakoitzean emandako dirulaguntzak ALHAOan hiru hilean behin argitaratzea (urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzena, berriki onartua).

Hori esanda, gardentasunari buruz estatuan dagoen oinarrizko legeria errespetatuz eta, zehatzago, abenduaren 9ko 19/2013 Legea, Gardentasun, informazio publikoaren eskuragarritasun eta gobernu onarena, errespetatuz, eta Autonomia Estatutuak foru organoei antolaketa, araubide eta funtzionamendu gaietan aitortzen eta ematen dien eskumen eskusiboa betez, otsailaren 8ko 1/2017 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onarena, onartu da eta, beraren eskutik, lehenengo xedapen gehigarrian xedatutakoaren itzalpean, Gardentasunaren Foru Kontseilua sortu da.

Azpitarratu behar da Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onaren foru arau honek foru organo berri hau eratzeko oinarriak ezarri baino ez dituela egiten. Kontseiluaren osaera eta funtzionamendu araubidea, berriz, foru xedapen arau emaile baten bidez egin behar da; hori da foru dekretu honek jokatzeko duen paper bikoitza.

Horrenbestez, organo horren sorrera aipatutako foru arauan agintzen bada ere, foru dekretu honen bidez eratzen da organoa. Xedapen honekin batera dagoen araudiaren bidez finkatzen da eta jasotzen du bere izaera; bertan bere osaera eta funtzionamendua zehazten dira.

Gardentasunaren Foru Kontseiluak erabateko independentziaz eta autonomiaz jardungo du bere helburu nagusia betetzeko orduan, hau da, herritarrek –informazio publikoa eskuratzeko daukaten eskubidea gauzatzuz– erabaki tazitu eta berariazkoen aurka egiten dituzten erreklamazioak ebazten dituenean. Eskumen horrek eduki juridiko handia du eta batez ere teknikoa da.

Helburu hori betetzeko, foru dekretu honek Gardentasunaren Foru Kontseilua eratzen du, organo hau sortutakoan. Era berean, foru organo honen antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen Antolaketa eta Funtzionamendu Araudiaren onartzen du. Araudi honek lau kapitulu (hogei artikulutan banatuta) eta azken xedapen bat dauka.

Hori dela bide, Arabako Diputatu Nagusiak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran aztertu ondoren, hauxe

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Gardentasunaren Foru Kontseilua eratzea eta funtzionatzen jartzea.

1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onarenak, lehenengo xedapenean ezarritakoarekin bat etorritik, Foru Dekretu honen bidez Gardentasunaren Foru Kontseilua eratzen da, aipatutako foru arau horretan, foru dekretu honetan eta antolamendu juridikoak aitortzen dizkion bestelako xedapenetan ezarritako eskumenak izango dituen. Haren osaera eta kideen izendapena gehienez ere hiru hilabeteko epean sartuko dira indarrean, foru dekretu hau indarrean sartzen denetik zenbatuta.

Bigarrena. Gardentasunaren Foru Kontseilua kide anitzeko organo espezializatua da, funtzionalki foru administrazioarengandik independentea dena. Haren eginkizun nagusia da informazio publikoa eskuratzeko eskaeretan ematen diren ebazpenen aurkako erreklamazioak ebaztea.

Hirugarrena. Gardentasunaren Foru Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamendu Araudia onartzen da. Haren testua foru dekretu honen eranskin gisa jarri da.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Indarrean dagoen egitura organiko eta funtzionala egokitzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 9ko 8/2016 Dekretuak, Diputatu Nagusiaren Sailaren egitura organiko eta funtzionala onartu zuenak, 3. artikuluan, sail horri atxikitako erakundeei buruzkoan, Gardentasunaren Foru Kontseilua gehitu zuen.

#### AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Araugintzarako gaikuntza

Gardentasunaren alorrean eskumena duen Aldundiko saileko titularrari baimena ematen zaio foru dekretu honetan ezarritakoa garatzeko eta betearazteko beharrezko diren xedapenak onartzeko.

Bigarrena. Indarrean jartzea

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 21a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Jarduneko Diputatu Nagusiaren Kabinetearen zuzendaria*

**ELENA FERREIRA SEBASTIÁN**

**ERANSKINA**  
**ARABAKO FORU ALDUNDIAREN GARDENTASUNAREN FORU**  
**KONTSEILUAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDU ARAUDIA**

**I. KAPITULUA**  
**XEDAPEN OROKORRAK**

**1. artikulua. Izaera eta atxikipena**

1. Gardentasunaren Foru Kontseilua kide anitzeko organoa da, foru administrazioarengandik funtzionalki independentea dena, espezializatua eta izaera teknikoduna. Autonomia funtzionalez aritzen da, informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen alorrean egiten diren erreklamazioen arloan.

2. Organo hori Diputatu Nagusiaren Sailari atxikiko zaio, baina beraren egitura hierarkikotik kanpo egongo da.

**2. artikulua. Eskumenak**

Gardentasunaren Foru Kontseiluari dagokio informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gauzatzeko ukapen tazitu eta berariazkoaren aurrean egiten diren erreklamazioak ezagutzea eta ebaztea. Beste eginkizun batzuk ere agindu ahal zaizkio, betiere Aldundiaren gardentasunaren alorrekoak.

**3. artikulua. Hura arautzen duten printzipioak**

– Autonomiaren printzipioa zaintzea erreklamazioak ebaztean, erabakiak hartzerakoan bere independentzia bermatzeko eta bere baitan balizko interes gatazkak ekiditeko.

– Inpartzialtasunaren printzipioa. Horrek esan nahi du Kontseiluak, bere funtzioak betetzen dituenean, interes publikoak baloratu behar ditu eta beraien alde aritu. Beraz, ezin izango du desbiderapenik izan bere kideen edo kanpoko pertsona edo kolektibo publiko edo pribatuen interes pertsonalen ondorioz.

– Bere jarduerak publiko egitearen printzipioa, beraren ebazpenak Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko baitira (datu pertsonalak bereizi ondoren).

– Erakundeen arteko lankidetzaren printzipioa, gardentasunaren berariazko araudia hobeto betetzeko eta bere funtzioak hobeto eta eraginkorrago betetzeko.

**4. artikulua. Araubide juridikoa**

Hauek dira Gardentasunaren Foru Kontseilua eraenduko dutenak: otsailaren 8ko 1/2017 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onarena, hura arautzen duten xedapenak, antolaketa eta funtzionamenduko araudi hau, araudi hau garatzeko onartzen diren arauak, kide anitzeko organoen gardentasunaren, administrazio prozeduraren eta araubide juridikoaren oinarritzko araudia, eta administrazio publikoaren jardura propioari aplikatu behar zaion edozein araudi.

**II. KAPITULUA**  
**GARDENTASUNAREN FORU KONTSEILUAREN OSAERA ETA FUNTZIOAK**

*Lehenengo atala. Osaera*

**5. artikulua. Eraketa**

Gardentasunaren Foru Kontseilua hiru kidek osatuko dute: lehendakariak eta bi kontseilukidek.

**6. artikulua. Errepresentazio parekidea**

Kontseiluko kideak izendatzeko prozesuak emakume eta gizonen errepresentazio orekatu-rako irizpideak bete behar ditu. Irizpide horiek berdintasun araudian ageri dira eta, bereziki, otsailaren 18ko 4/2005 Legean, Gizonen eta emakumeen berdintasunarenean.

*Bigarren atala. Lehendakaritza***7. artikulua. Izendapena**

Gardentasunaren alorreko eginkizunak bere gain hartzen dituen zuzendaritzako kide titularra izango da lehendakaria.

**8. artikulua. Eginkizunak**

1. Organoko lehendakariaren eginkizunak administrazio publikoetako kide anitzeko organoetarako ezarritako eginkizun orokorrak izango dira, eta ondoko hauek, zehatzago:

- a) Organoaren ordezkari izatea.
- b) Bilkura arrunt eta berezien deialdia erabakitzea, baita bilkuretako aztergaien zerrenda ere. Gainerako kideen eskaerak kontuan izan behar ditu, baldin eta epe nahikoarekin egin badira.
- c) Bilkuren lehendakari izatea, eztabaiden garapena moderatzea eta berauek justifikatutako kariengatik etetea.
- d) Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onaren Foru Araua eta gainerako antolamendu juridikoa betetzen direla bermatzea.
- e) Gai bakoitzeko txostengilea izendatzea. Lan zama kontseilukideen artean modu orekatuan partekatzen saiatzea.
- f) Antolamendu juridikoak esleitzen dion beste edozein eginkizun.

2. Arabako Foru Aldundiko zuzendaritzetako titularrek ordezkatzeko araubideak finkatuko du lehendakariaren ordezkoak jartzeko modua, aldi batez kanpoan, gaixo edo ezinduta dagoenean edo abstenitzen edo errefusatua denean.

*Hirugarren atala. Kontseilukideak eta Idazkaritza***9. artikulua. Kontseilukideen izendapena**

1. Kontseilukide titular izendatua izateko, hautatutako pertsonak betekizun hauek betetzen dituztela egiaztatu behar dute:

- a) Arabako Foru Aldundiko funtzionario izatea, eta beren kidegoan edo eskalan sartzeko beharrezkoa izatea Zuzenbideko Lizentziatura edo horrekin homologatu ahal den unibertsitate gradua (A1).
- b) Hautagaiak gutxienez bost urteko antzintasun frogatua izatea karrerako funtzionario gisa aurreko paragrafoan aipatutako kidego edo eskalan.
- c) Kontuan izango da, era berean, izendatutako pertsonak izaera juridikoko txostenak edo ebazpen proposamenak egitearen inguruko lanpostuak okupatu izana.

2. Foru Gobernu Kontseiluak izendatuko ditu, foru dekretu bidez, diputatu nagusiak proposatuta.

**10. artikulua. Kontseilukideek kargua uztea**

Gardentasunaren Foru Kontseiluko kideek beren kargua utzi ahalko dute, beraiek eskatuta. Foru Gobernu Kontseiluak ere kargugabetzea erabaki ahalko du, baldin eta kide batek bere bete-beharren ez betetze larria egiten badu, bere funtzioak betetzeko ezintasun iraunkorra erakusten badu, gertaera bidezko bateraezintasunean sartzen bada edo dolozko delitu batengatik kondena jasotzen badu. Kargugabetze hori behar bezala motibatu beharko da, aldez aurretik prozedura egokia hasi eta instruitu beharko da, eta interesdunari entzunaldia eman.

**11. artikulua. Kontseilukideen ordezkapena**

Kontseilukideren bat hilabetez edo gehiagoz falta bada edo gaixorik badago, edo beste zerbaitegatik bere eginbeharrak ezin baditu bete, nahiz eta kargua utzarazteko arrazoirik izan ez, eta horrek eragin handia badauka organoaren jardunean, lehendakariak diputatu nagusiari

eskatu ahal izango dio proposa diezaiola Foru Gobernu Kontseiluari ordezkoa izendatzeko falta denaren edo lanerako gauza ez denaren egitekoetan aritzeko. Ordezkoak titularren izendapenerako eskatzen diren betekizun berak bete behar ditu.

### **12. artikulua. Kontseilukideen agintaldia eta dedikazio erregimena**

1. Kontseilukideen agintaldia lau urtekoa izango da. Beste lau urtez luzatu ahalko da, Foru Aldundiak hala erabakitzen badu, Kontseilua atxikita dagoen foru saileko titullarrak proposatuta.

2. Kontseilukide eta aldi berean funtzionario izanik karguari dagozkionetan dihardutenek ez dute dedikazio eskusiborik izango. Zeregin horietan emandako denbora lan ordu gisa hartuko da, alegia, laneguneko zati; horiek horrela, zeregin horiek eta bere lanpostukoak txandakatuko ditu.

Hala eta guztiz ere, organo honek izaera berme emailea duenez gero, eta erreklamazioak ebazteko eman diren epeak ikusita, Kontseiluan bete behar diren funtzioek lehentasun handiagoa izango dute lanpostuko eginkizun propioek baino.

### **13. artikulua. Eginkizunak**

Gardentasunaren Foru Kontseiluko kideek eginkizun hauek dauzkate:

a) Berrogeita zortzi orduko aurrerapenarekin behintzat jasotzea bileren gai zerrenda azaltzen duen deialdia. Gai zerrendan azaltzen diren gai ei buruzko informazioa mahaikideen esku egongo da epe berdinean.

b) Txostengile izendatzen diren gaiak ebazteko proposamenak idaztea eta Kontseiluari aurkeztea.

c) Bilkuretan izatea eta eztabaidetan parte hartzea.

d) Botoa emateko eskubideaz baliatzea, boto partikularra ematea, gehiengoaren jarrerarekin bat eginez edo haren kontra eginez, eta botoaren esanahia eta arrazoiak azaltzea.

e) Galderak eta eskaerak egitea.

f) Norberari emandako egitekoak betetzeko behar den informazioa lortzea.

g) Mahaikide izatearekin doazen beste eginkizun guztiak betetzea.

### **14. artikulua. Idazkaritza**

1. Kontseilukide batek egingo ditu Gardentasunaren Foru Kontseiluko idazkari eginkizunak.

2. Hauexek dira Organoko Idazkaritzaren eginkizunak:

a) Bilkuretako aztergaien zerrendak prestatzea eta bidaltzea, eta gaiak aztertzeko behar den dokumentazioa ere bai.

b) Kontseiluko lehendakariak aginduta, bilkuretarako deialdiak egitea, bai eta behar diren zitazio guztiak ere.

c) Bilkuretako aktak idaztea eta baimentzea.

d) Lehendakariak aginduta, eta hark ontzat eman ondoren, akten, ebazpenen eta erabakien ziurtagiriak egitea.

e) Kontseiluak jasotzen dituen erreklamazioen eta gainerako agirien sarrera-irteeren erregistroa kudeatzea.

f) Erabakiak hartzeko eta eraketako prozedura eta arauak errespetatzen direla bermatzea.

g) Kide anitzeko organo baten idazkaritzaren berezko beste eginkizun guztiak.

### III. KAPITULUA GARDENTASUNAREN FORU KONTSEILUAREN ANTOLAKETA

#### **15. artikulua. Aplikatu behar den araudia**

Kontseiluaren antolaketa eta funtzionamendu araubidea Araudi honetan araututakoa izango da eta, bidezkoa denean, Araudia garatzeko Kontseiluak onartzen dituen funtzionamenduko barne arauak ere bai; horrelako araurik onartzen bada, Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Irekiaren Atarian jarriko dira ikusgai.

#### **16. artikulua. Funtzionamendua**

1. Funtzionamendua osoko bilkuraren bidezkoa izango da. Kontseilukideei txostenak egiteko eskatu ahalko zaie, lehendakariaren bidez, esleitutako funtzioak behar bezala egiteko edo gaiak prestatzeko beharrezkoa baldin bada.

2. Organoaren bilkurak presentzialak izango dira, ahal baldin bada. Hala eta guztiz ere, kide anitzeko organoak urruneko saioak egin ahalko ditu, baldin eta bitarteko elektronikoen bidez ziurtatzen bada bilkurak ondo egingo direla, organo horien araubide juridikoaren oinarriko legerian ezarritakoarekin bat etorritik.

#### **17. artikulua. Batzarren araubidea**

1. Kontseilua aldi behin batzartuko da, lehendakariak deialdia egin ondoren. Aztergaien zerrenda eta aztertu eta analizatu beharreko dokumentazioa erantsiko dizkio deialdiari.

2. Deialdiak formatu elektronikoz jakinaraziko dira. Dokumentazioa prozedura bera erabiliz bidaliko da, salbu eta hasiera batean erabili den formatua kontuan izanik paperez bidali behar bada, salbuespen moduan.

#### **18. artikulua. Bilkuren funtzionamendua**

Kontseiluaren funtzionamendu arruntean, haren hiru titularrak egongo dira edo, bestela, ordezkoren bat.

### IV. KAPITULUA ERREKLAMAZIOAK EBAZTEKO PROZEDURA

#### **19. artikulua. Ebazpen proposamena**

Kasu bakoitzean txostengile izendatzen den pertsonak idatziko du ebazpen proposamena. Erregistroko ordenaren arabera esleituko zaizkie gaiak txostengileei.

#### **20. artikulua. Erabakiak eta ebazpenak emateko sistema**

Kontseiluak ematen dituen erabakiak eta ebazpenak kontsentsuz edo, bestela, gehiengoz emango ditu. Berdinketarik badago, kide bat abstenitu delako edo beste edozein arrazoiengatik, lehendakariak kalitatezko botoa izango du.

### AZKEN XEDAPENA

Arabako Foru Aldundiaren Gardentasunaren Foru Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamendu Araudi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aplikatuko da